## Informazio-orria

# Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabiltzaileentzako konpentsazio-eskaera

Agiri honen xedea da, batetik, eskatzaileari jakinaraztea zer izapide egin behar duen nekazaritzako eta abeltzaintzako erabiltzaileentzako konpentsazio-eskaera egiteko, eta, bestetik, adieraztea zer datu edo agiri aurkeztu behar duen horretarako.

## 1 Baimena nork eskatu behar duen

Uraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida bat –1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. artikuluan sartzen ez dena– lortu nahi duen edozein pertsonak edo entitatek (1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, Uren Legearen testu bategina onartzen duena).

Beharrezkoa da uren nahitaezko emakida edukitzea, uren aprobetxamendua egiteko.

## 2 Nola eta non eskatzen den

Eskabide-eredu bat dago, eta han jasotzen da zer datu bete behar den eta zer agiri aurkeztu behar den espedientea izapidetzeko. Eskabidea modu telematikoan bete daiteke, URAren webgunean, edo izapidea aurrez aurre egin daiteke, eskabidea beteta eta eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztuta, hemen:

- **Egoitza nagusiko erregistroan edo arroen bulegoetako erregistroetan:**

### 1 Vitoria-Gasteiz

- Boulevard eraikina
- Gamarrako atea 1 A, 11. solairua
- 01013 Vitoria-Gasteiz

### 2 Bilbo

- Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua.
- 48011 Bilbo

### 3 Donostia

- Intxaurrondo 70, 1. solairua
- 20015 Donostia

- **Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotzen diren lekuetan (https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-10565-consolidado.pdf).**

## 3 Eskabidea betetzeko argibideak

Jarraian, zenbakien bidez eta dagokion azalpenarekin zehazten da zer datu sartu behar diren eta zer informazio eman behar den nekazaritzako eta abeltzaintzako erabiltzaileentzako konpentsazio-eskabide honen lauki bakoitzean. Kontuan izan behar da ez dagoela kasu guztietan lauki guztiak bete beharrik, uraren entitate edo erabiltzaile bakoitzak bere egoera partikularraren arabera bete beharko baitu inprimakia.

# Sareko horniduraren bidez nekazaritza eta abeltzaintzako erabileretarako ura jasotzen duten nekazaritzako eta abeltzaintzako erabiltzaileentzako konpentsazioa. F.A-0016

Inprimaki hau betetzeko, **idatzi letra larriz, eta markatu gurutze batez** dagozkion laukiak. Nahitaez bete beharreko eremuak **izartxo gorriz** markatu dira. Aurkeztu eskabide bakarra konpentsatu beharreko ekitaldiari dagozkion ur-faktura guztietarako.

## 1 Eskatzailearen datuak

Eskatzailearen datuak beti bete beharko dira, nahiz eta harremanetarako pertsonaren edo ordezkariaren datuak ere adierazi.

| | | |
|---|---|---|
| Izen-abizenak /Sozietatearen izena(*): | ESJN: | Sexua(*): |
| NAN/IFZ(*): Adib. :00000000P/ A0000000P ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Lurralde historikoa(*): | Udalerria(*): |
| Herria(*): | Helbidea(*): | Posta-kodea(*): |
| Telefonoa(*): ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Helbide elektronikoa: | |

Ordezkaririk/Harremanetarako pertsonarik izanez gero

| | | |
|---|---|---|
| ☐Ordezkaria | ☐Harremanetarako pertsona | |
| Izen-abizenak /Sozietatearen izena(*): | | Sexua(*): |
| NAN/IFK(*): Adib. :00000000P/ A0000000P ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Lurralde historikoa(*): | Udalerria(*): |
| Herria(*): | Helbidea(*): | Posta-kodea(*): |
| Telefonoa(*): ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Helbide elektronikoa: | |

*Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistroan mota honetako espedienteetarako alta emanda dagoen ordezkari bat edukiz gero, ordezkari horrek lehentasuna izango du eskabide honetan adierazten denaren aurretik.*

Jakinarazpenak

| | | |
|---|---|---|
| Jakinarazpenetarako hizkuntza 1 | | ☐Euskara<br>☐Gaztelania |
| Jakinarazpen mota (pertsona fisikoak) 2 | | ☐Elektronikoa<br>☐Posta bidezkoa |
| Lurralde historikoa: 3 | Udalerria: 4 | Herria: 5 |
| Helbidea: 6 | | Posta-kodea: 7 |
| Telefonoa 8 ☐☐☐☐☐☐☐☐☐ | Helbide elektronikoa: 9 | |

## 2 Ezaugarriak

| | |
|---|---|
| Urez hornitzen duen entitatea(*) | 10 |
| Urtea(*) | 11 |
| Konpentsatu beharreko lehen ur-fakturaren fakturazio-aldiaren hasiera-data(*) | 12 |
| Konpentsatu beharreko azken ur-fakturaren fakturazio-aldiaren amaiera-data(*) | 13 |

## 3 Ezaugarriak

**Konpentsatu beharreko zenbatekoa zehaztea**

| | |
|---|---|
| Konpentsatu beharreko ur-fakturetan hornitutako ur-bolumena ($m^3$/urte(*)) | 14 |
| Uraren kanonaren karga-tasa(*) | 15 |
| Uraren kanonak fakturan izango duen eragin zenbatetsia (hornitutako ur-bolumena x karga-tasa). Guztira (€)(*) | 16 |
| Konpentsatu beharreko kanonaren eraginaren % (2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan: % 100; 2025eko ekitaldian eta hurrengoetan: % 90)(*) | 17 |
| Konpentsatu beharreko zenbatekoa (uraren kanonak fakturan izango duen eragin zenbatetsia x konpentsatu beharreko kanonaren eraginaren %) Guztira (€)(*) | 18 |

## 4 Erantsitako egiaztagiriak

Dokumentazioa paperean nahiz formatu digitalean aurkez daiteke. Adieraz ezazu, gurutze batez, aurkeztu behar duzun dokumentazioa bakarrik.

**1. Kasu guztietan aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra:**

☐Konpentsatu beharreko ur-fakturen kopia eta fakturak ordaindu izanaren egiaztagiria(*).

☐Kontratuaren kopia, uraren erabilera abeltzaintzarako edo ureztaketarako dela adierazten duena, edo entitate hornitzailearen ziurtagiria, erabilera hori egiaztatzen duena(*).

☐Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatutako nekazaritza-ustiategi baten titularra zarela edo Nekazaritzako Ustiategien Txartela duzula egiaztatzen duen dokumentazioa, Uraren Euskal Agentziaren egiaztapenaren aurka agertuz gero.

☐Bestelako dokumentazioa. 19

☐Adierazten dut ez nagoela ados Uraren Euskal Agentziak egiaztatzearekin eskatzailea Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan inskribatuta dagoela edo Nekazaritzako Ustiategien Txartela duela; horregatik, hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten dut hobaria jasotzeko.

### Eskatzailearen sinadura (edo ordezkariarena)(*)

20

# F.A-0016

**1. Eskatzailearen datuak:**

Lehenik eta behin, eremu hauek bete behar dituzu:

- Eskatzailearen identifikazio-datuak: IFZ edo sozietatearen izena.
- Harremanetarako pertsonaren/Ordezkariaren identifikazio-datuak.

1. Jakinarazpenetarako hizkuntza.
2. Jakinarazpen mota.
3. Jakinarazpenetarako helbidearen lurralde historikoa (Araba/Bizkaia/Gipuzkoa).
4. Jakinarazpenetarako helbidearen udalerria.
5. Jakinarazpenetarako helbidearen herria.
6. Jakinarazpenetarako helbidea.
7. Jakinarazpenetarako helbidearen posta-kodea.
8. Jakinarazpenak egiteko telefono-zenbakia.
9. Jakinarazpenetarako posta elektronikoa.

**2. Ezaugarriak**

**Aprobetxamendua:**

10. Konpentsazio-eskaeraren xede den ura hornitzen duen erakundea eta, beraz, uraren fakturak egiten dituena.
11. Konpentsazio-eskaeraren xede den ura hornitu deneko urtea.
12. Konpentsazioa eskatzen den ekitaldiko lehen ur-fakturaren fakturazio-aldiaren hasiera-data. Urtebetean uraren zenbait faktura igorri badizkizute, eta horiek konpentsatzeko baldintzak betetzen badituzte, faktura guztiak konpentsatzeko eskaera bakarra egin behar duzu.
13. Konpentsazioa eskatzen den ekitaldiko azken ur-fakturaren fakturazio-aldiaren amaiera-data.
14. Konpentsatu beharreko ur-fakturetan hornitutako ur-bolumena (m3/urte). Konpentsatu beharreko fakturen bolumenen batura.
15. Uraren kanonaren karga-tasa:
    - 2022. urtea: 0,02 €/m3.
    - 2023. urtea: 0,025 €/urte
    - 2024. urtea eta hurrengoak: 0,03 €/m3
16. Uraren kanonak fakturan duen izango duen eragin zenbatetsia. Kalkulua egiteko, hornitutako ur-bolumena (14. laukia) karga-tasarekin (15. laukia) biderkatu behar da.
17. Konpentsatu beharreko ehunekoa (2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan: % 100; 2025eko ekitaldian eta hurrengoetan: % 90).
18. Konpentsatu beharreko zenbatekoa. Honela kalkulatzen da: uraren kanonak fakturan izango duen eragin zenbatetsia (16. laukia) bider konpentsatu beharreko ehunekoa (2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan: bider 1; 2025eko ekitaldian eta hurrengoetan: bider 0,9).
19. X batez markatu zer dokumentu aurkezten duzun.
    Eskabidearekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da, gutxienez:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa, ustiapen-koadernoa, ingurumen-kontratua edo antzeko beste egiaztagiri batzuk.
    - Konpentsatu beharreko ur-fakturen kopia.
20. Interesdunaren sinadura/zigilua.